

Balorezko proposamenak

Furgomarket-ekin herri txikietako jendearen onura bilatu nahi dugu batik bat. Furgonetak eramango genituzke hauen herrietara salgaiez beteta. Honekin, jendearen denbora eta batez ere gasolina aurreztea lortuko genuke.



Salgai hauek inguruko baserrietatik erosiko genituzke, haiekin akordio bat egin baikenuen. Akordio honi esker, produktuak kantitate handian, prezio merkean eta guztiz naturalak salduko dizkigute.

Laburbilduz, gure lana produktuak ibilgailuetan herri txikietara eramatea izango da, bertan saldu eta herritarren onura bilatzeko. Herritarrentzat sekulako erraztasuna izango litzatekeela uste dugu.

